


Susanna Martin eta Cristina Buenoren komiki bat UNRWA Euskadirentzat

AHLAM

Bizitza batekin amestuz

LIBANOKO EMAKUME PALESTINAR ERREFUXIATUEN ISTORIOAK



AHLAM

Bizitza batekin amestuz

LIBANOKO EMAKUME PALESTINAR ERREFUXIATUEN ISTORIOAK

Susanna Martin eta Cristina Buenoren
komiki bat UNRWA Euskadirentzat

Gaztelera eta euskaraz lehenengo argitalpena, Bilbo, 2021eko urria

Marrazkiak: Cristina Bueno

Testuak: Susanna Martín eta UNRWA Euskadi

Edizioa: Susanna Martín

ISBN: 978-84-09-34126-9

Lege gordailua: M-33272-2021

Doako alea. Debekatua dago merkaturatzea

UNRWA Euskadi / Palestinako errefuxiatuentzako Nazio Batuen Agentzia



<https://unrwauskadi.org/>

Argitalpen hau UNRWA Euskadiko taldeak egin du, "Libanon bizi diren Palestinako emakume errefuxiatuen zaurgarritasuna murrizteko ahalduntze-estrategiak" proiektuaren baitan, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren diru-laguntzarekin. Komiki honek Hezkuntza-helburuak ditu.

Argitalpen honetan emandako iritziek ez dute nahitaez UNRWA Euskadiren eta Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren jarrera eta iritzia islatzen.



CC by-SA lizentziapean argitaratutako edukiak: Creative Commons



Aitortu-EzKomertziala-ObraEzDeribatua (BY-NC-ND): Lizentzia honek obrak deskargatu eta beste pertsona batzuekin partekatzeko aukera baino ez du ematen, betiere egiletza onartzen bada, baina ezin dira inolako aldaketak egin eta ezin dira merkaturatu.

PALESTINA ESKUALDEA Otomandar Inperioaren barruan egon zen lau mendez, Lehen Mundu Gerrara arte. **1922.** urtetik, Erresuma Batuak izan zuen aginte politikoa palestinar lurraldean. Aldi horretan, juduen immigrazio-fluxua gertatu zen eta, ondorioz, gatazka ugari sortu ziren. **Britainiarren agindupean 25 urte** eman ondoren, Palestinako egoera demografikoa aldatu egin zen erabat: 1922an 725.000 pertsona ziren eta 1946an ia 1.850.000. Juduen populazioa I. Mundu Gerraren amaieran 56.000 lagun izatetik 1946an 608.000 izatera pasatu zen.

1947an, indarkeria nagusi zen egoera batean, Erresuma Batuak Nazio Batuen esku utzi zuen Palestinako arazoa. Egoera horretan, estatu askoren iritiz, lurraldea zatitu eta estatu arabiar bat eta estatu judu bat eratzea zen konponbiderik onena. Estatu arabiarrek, ordea, inoiz ez zuten onartu lurraldea zatitzeko plana.


Azkenean, **1947ko azaroaren 29an, Nazio Batuen Batzar Nagusiak 181 (II) ebazpena onartu zuen. Palestina hiru zatitan** banatzea gomendatzen zuen: estatu judu bat, estatu arabiar bat eta Jerusalem, nazioarteko erregimen baten pean. Zatiketa-plan hori, ordea, ez zen inoiz gauzatu.

1948ko maiatzaren 14an, Ben Gurionek, gero Israelgo lehen ministro izango zenak, Israelgo Estatuak aldarrikatu zuen. Alde bakarreko aldarrikapena izan zen, eta gerra hasi zuen estatu mugakideen artean: Jordania, Egipto, Libano eta Siria. **1949an**, armistizio-akordioa lortu zen, eta gerra hasi zuen estatu mugakideen artean: Jordania, Egipto, Libano eta Siria.

1949an, armistizio-akordioa lortu zen aurkariaren artean. Israelek Palestinaren zatirik handiena bereganatu zuen, Jordaniak okupatutako Zisjordania eta Egiptok hartutako Gazako Zerrenda ez beste guztia. Gerra horretako armistizioak ezarritako mugari **marra berdea** esaten zaiho.

Horrek **palestinarren exodo masiboa** eragin zuen, **Nakba** izenez ezagutzen dena —«hondamendia» esan nahi du arabieraz—. Hala, 1949. urtearen amaieran, 726.000 bat lagunek, Palestinako populazio autoktonoaren erdiak, etxea utzi eta **babesa bila ihes egin zuten inguruko herrialdeetara (Jordania, Libano eta Siria)** eta Palestinako beste eremu batzuetara (gaur egun **Zisjordania eta Gazako Zerrenda** deritzenetara).

Gerra horrek palestinarren artean eragindako larrialdi-egoeraren aurrean, **1949ko abenduaren 8an**, Nazio Batuen Batzar Nagusiak **UNRWA** sortu zuen, Palestinako errefuxiatuei laguntza humanitariora, aterpea, babesa, hezkuntza, osasuna eta beste gizarte- eta garapen-zerbitzu batzuk emateko berariazko agentzia. Agentziak **1950eko maiatzaren 1ean ekin zion lanari**, gaur egunera arte berrituz joan den hiru urteko agintaldiarekin. Harrezkero, UNRWAK bost eremutan egiten du lan (Jordania, Libanon, Sirian, Gazako Zerrendan eta Zisjordanian), eta **Palestinako 5,7 milioi errefuxiatu baino gehiagori** eskaintzen dizkie zerbitzuak. Palestinako errefuxiatuak erbestearen denbora gehien (70 urte baino gehiago) eman duen errefuxiatu-taldea da, iraupen luzeko munduko errefuxiatuen % 40, gutxi gorabehera. Bost eremu horietan UNRWAK lagundutako 58 errefuxiatu-esparruetan bizi dira biztanle horietatik milioi eta erdi lagun.



Libano ere Otomandar Inperioaren parte izan zen Lehen Mundu Gerrara bitartean, eta, 1922tik 1943ra, independentziaren urtera arte, Frantziaren agindupean egon zen. Frantziako azken soldaduak 1946an utzi zuten herrialdea. 10.450 km² hedapenarekin, muga egiten du Israelekin eta Siriarekin. Geografia menditsua du eta 8 gobernaziotan dago banatuta. **6 milioi biztanle ditu**, eta erlijio-aniztasuna nabarmena da herrialdean.


Ehun eta hogeita hamar mila palestinarrek baino gehiagok Libanora egin zuten ihes 1948ko eta 1967ko exodoetan, lehenengoan Israelgo estatuaren sorreraren ondorioz eta bigarrenean arabiarren eta israeldarren arteko bigarren gerraren ondorioz. Populazio hori, hasiera batean, hegoaldeko mugatik hurbil zeuden eremu hutsetan kokatu zen eta, ondoren, kostaldeko hiri nagusien –Beirut, Tripoli, Saida-Sidon eta Tiro– kanpoaldean eta Bekaa ibarrean. Denborak aurrera egin ahala, Libanoko gobernuak laga egin zituen lurralde horiek, UNRWArein gainbegiradapean kanpamentuak sortzeko. 2020ko abenduaren 31ko datuen arabera*, **UNRWak ia 480.000 errefuxiatu palestinar ditu erregistratuta Libanon**. Horietatik %45, ezarrita dauden **12 kanpamentuetan** bizi dira: Beddawi, Burj Barajneh, Burj Shemali, Dbayeh, Ein El Hilweh, El Buss, Mar Elias, Mieh, Nahr el-Bared, Rashidieh, Shatila eta Wabel**. Kanpamentuak gainpopulatuta daude eta ezaugarri hauek dituzte: **langabezia, pobrezia, gaixotasunen prebalentzia handia eta etxebizitzaren ezegonkortasuna**. Beste errefuxiatu asko kanpamentu horietatik hurbil dauden 156 «gathering» edo kokaleku prekarioetan bizi dira.

Palestinako errefuxiatuek Libanon bizi izan duten egoera harrerako herrialde bateko zailenetakoa izan da historian zehar, **krisi humanitario eta babesik gabeko egoera jarraitu eta luzean** bizi izan baitira. Libanoko administrazioaren mendeko Palestinako Errefuxiatuen Gaietarako Sailak arautzen du errefuxiatu horien legezko estatusa.

Giza eskubide oinarritzkoenak izatea mugatzen dute hainbat lege-oztopok. Zerbitzu publiko gehienetara sartzea mugatu zaie, erregimen nazionalako osasun aseguruetatik kanpo utzi dituzte eta debekatu egin zaie jabetzak izatea edo 39 lanbidetan lan egitea, hala nola medikuntzan, kontabilitatean eta ingeniartzan. Hala, laguntza humanitarioaren eta UNRWak emandako zerbitzuen mende daude. Agentziak Libanon dauden Palestinako 210.000 errefuxiatu baino gehiagori eskaintzen dizkie zerbitzuak, Siriatic datozen 28.000 ingururi barne. 65 ikastetxe eta lanbide-heziketako zentro 1 kudeatzen ditu –38.500 haur eta gazte inguru joaten dira ikastetxe horietara–, eta baita 27 osasun-zentro ere zeinatan milioi erdi bat kontsulta egiten dituzten urtean.

Horrek guztiak **bazterketa sozial, politiko eta ekonomikoa** eragiten die palestinar errefuxiatuei, eta **desberdintasun-egoeran** uzten ditu nazionalitate libanoarra duten pertsonen aurrean. Formalki ez dira beste estatu bateko herritartzat hartzen, eta, horregatik, ezin dituzte eskatu herrialdean bizi eta lan egiten duten beste herrialde batzuetako herritarren eskubide berberak.

Independentzia lortu zuenetik, Libanoren historian ezegonkortasun politiko eta ekonomikoko aldiak tartekatuta dira, Beirut hiriburuaren, merkataritzaren eta finantzen eskualde-zentroaren, oparotasunarekin konbinatuta.



1975ean gerra zibila hasi zen Libanon, eta 1990aren amaiera arte iraun zuen. 1982ko ekainaren 6an, Israelgo armadak Libanoko hegoaldea inbaditu zuen, batetik Palestinaren Askapenerako Erakundea (PAE) herrialdetik kanporatzeko eta bestetik Israeliek Erresuma Batuan zuen enbaxadorea –Shlomo Argov– hiltzeko Abu Nidal taldeak egindako saiakerari erantzuteko. **1982ko irailean, Palestinako errefuxiatuen Sabrako eta Shatilako kanpamentuetako sarraskia** gertatu zen. Milizia kristau libanarrak kanpamentu horietan sartu ziren indarrez, eta armarik gabe zeuden ehunka pertsona hil zituzten. Kahan Batzordearen arabera, Libanon ezarritako armada israeldarra gertaeren zeharkako erantzule izan zen, hilketak ez zituelako eragotzi. Sarraskiak genozidio-egintzaren kalifikazioa jaso zuen Nazio Batuen Batzar Nagusiaren aldetik, 37/123 ebazpenaren bidez. 2000. urtean, Israelgo soldatuek alde egin zuten Libanotik.

1990eko hamarkadaren hasieran susperraldi ekonomiko sendoa izan ondoren, Libanok krisi ekonomiko sakona izan zuen 2000. urtean, eta testuinguru politikoa astindu zuten gertaerak izan ziren bata bestearen ondoren, hala nola Rafik Hariri lehen ministro ohiaren erailketa (2005), Israeliek Libano inbaditzea (2006ko uztaila-abuztua) eta Palestinako errefuxiatuen Nahr al-Baredeko kanpamenduko gatazka armatuak (2007ko maiatza).

2011n, gerra piztu zen Sirian, eta horrek herritar asko beste herrialde batzuetara joatea eragin zuen. Libanoko gobernuaren kalkuluen arabera, 2018ko urrian, Siriatik etorritako 1,5 milioi pertsonak bilatu zuten babesa Libanon. Libanoko biztanleen %20a baino gehiago da hori, hau da, munduko errefuxiatu-proportziorik handiena, eta handitu egin zen Libanoko ekonomiaren eta gizarte-zerbitzuen gaineko presioa.

Siriako krisia hasi zenetik, **Sirian bizi ziren Palestinako 122.000 errefuxiatu inguruk utzi dute herrialdea, eta horietatik 28.000 inguru Libanon daude gaur egun**. Modu irregularrean sartu zirenek eta/edo irteera-agindua jaso zutenek ezin dute Libanon beraien egoera erregularizatu. UNRWaren arabera, errefuxiatuen % 40aren baino gehiagoren dokumentazioa ez da baliozkoa; beraz, ez dira kanpamentuetatik irtetera ausartzen lana bilatzeko edo osasun zerbitzuak jasotzeko. Pertsona horiek errefuxiatuak ziren, bigarren herrialdetik (Siriatik) alde egin behar izan zuten gerraren ondorioz eta hirugarren herrialde batera (Libanora) joan behar izan dute; herrialde horretan baztertuta bizi dira, UNRWak ematen dien laguntza humanitarioaren mende. Errefuxiatu horien % 89 pobrezia-atalasearen azpitik bizi da, eta % 49 elikadura-ziurgabetasunez. Siriatik etorritako Palestinako errefuxiatuen muturreko pobrezia-maila hiru aldiz handiagoa da muturreko pobrezian bizi diren Libanoko etxeena baino.



2019ko irailean, Libanoko gobernuak «larrialdi ekonomikoko estatua» deklaratu zuen hainbat egitura-arazo zirela eta, hala nola 91.000 milioi dolarreko zor publikoa (barne-produktu gordinaren % 170, munduko handienetakoa), ekonomia-hazkunde apala eta defizit fiskal handia. Protesta ugari eta biztanleriak erreforma handiak eskatzea eragin zuen deklarazio hark.

Horri gertaera hauek gehitu behar zaizkio: **COVID-19aren pandemiak 2020ko martxotik izandako eragina** (650.000 kasu baieztatu baino gehiago, 8.500 heriotza eta 3 milioi txerto-dosi baino gehiago emanda, Osasunaren Mundu Erakundearen arabera), lehen ministroak kargua utzi izana eta gobernu berri bat eratu izana, eta **2020ko abuztuaren 4an Beiruteko portuan** izandako eztanda. 200 hildako eta 6.000tik gora zauritu eragin zituen, beste asko shock-egoeran utzi zituen eta hainbat azpiegituratan kalteak eragin zituen, esaterako, osasun-zentro eta ospitaleetan, negozioetan, etxebizitzetan eta auzo osoetan 20 km-ko itzulenguruan. Gainera, gertaera garrantzitsua da hori, Libanoko merkataritza-jarduera handiagatik eta inportazio-bolumenagatik horietako asko portutik igarotzen baitira. Inflazioa hiru digitutara iritsi zen, barne-produktu gordin nazionalak beherantz jarraitu zuen eta libera libanoarrak balioa galtzen jarraitu zuen; hala, nabarmen handitu ziren herrialdeko pobrezia-mailak, elikadura-ziurgabetasuna, etsipena eta langabezia komunitate libanoarren eta ez-libanoarren artean.

Testuinguru horretan, Palestinako emakume errefuxiatuek beren komunitateen euskarri izaten jarraitzen dute, eta horrek karga emozional eta zaintza-karga handia dakar, are handiagoa testuinguru horretan. Halere, aipatutako lege-oztopoak eta haien bizitzako alderdiak arautzen dituen erlijioan oinarritutako beste eragozpen batzuk direla eta, palestinar emakume errefuxiatuek oso zaila dute lana lortzea, ez dute babes egokia jasotzen bikotekideek eragindako genero-indarkeriaren aurrean (pandemiarekin handitu egin da) eta ez dute behar adinako laguntza eskuratzen dibortzioetan eta seme-alaben zaintza-prozesuetan, bereziki bikotekideak libanoarrak badira.


Komiki hau Libanon dauden Palestinako emakume eta neska errefuxiatuen benetako bizitza-istorioetan oinarrituta dago, UNRWAn gizarte-langileen, babes-langileen eta komunikazio-langileen taldeak bertan bildutakoak.

Guztiei eskertzen diegu komiki hau idazteko duintasunetik eta egunero beste etorkizun posible bati aurre egiteko ausardiatik eragindako testigantza.

OHARRAK:

*Datuen jatorria <https://unrwa.es/wp-content/uploads/2021/09/UNRWA-en-cifras-2020-21-FINAL.pdf>

**Informazio gehiago hemen: <https://www.unrwa.org/where-we-work/lebanon> eta <https://unrwa.es/refugiados/campos/libano/>



2020ko abuztuaren 4an, portuan
biltegiaratuak 2.750 tona amonio
nitratok eztanda egin zuten Beiruten.



Eztandak portuari eragin zion, eta 20
kilometroko inguruari. Ia 200 hildako eta
6.000 zauritu baino gehiago izan ziren.



Istripu horrek, COVID-19aren pandemiaren
testuinguruan, gainezka egitera eraman
zituen ospitaleak eta osasun-zentroak.

Shatilako eremua, Beirut. UNRWAre osasun-zentroa.

Arnasa-arazoak dituzten
pazienteak bereizi egingo ditugu
gainerakoengandik. Hori ezer
baino lehen.

Ondo da,
Ahlam.

Eta, paziente
bakoitzaren ondoren
guztia garbitu
eta desinfektatu.
Ulertu duzu?

Ahlam: ERIZAINZAKO
BURUA. UNRWA SHATILAN
DUEN OSASUN-ZENTRO
BATEAN EGITEN DU LAN.

Zalantza bat
izanez gero, galdetu
Amirari.

Mila esker,
Amira.

Uf, ezin
dut gehiago.

Zenbat
denbora
daramazu
atsedenik
hartu gabe?

Ez dakit ba...
Baina eztanda hori
besterik ez genuen
behar. Pandemiarekin
nahikoa ez eta...
Leher eginda nago,
baina ez daukat ordu
erdiko lo-kuluxka bat
egiteko astirik ere.




BEDDAWI



Beddawiko eremua, Tripoliko iparraldean.



Rawa: UNRWA-KO
BEDDAWI KANPALEKUAN
EGITEN DU LAN. PALESTINAKO
EMAKUMEEI LAGUNTZEN DIE.




1948an, nire gurasoak
Palestinako Haifan bizi
ziren, baina Kuwaitera ihes
egin behar izan zuten.
1990eko hamarkadan, ni txikia
nintzela, herrialde hori UTZI
behar izan genuen gerraren
ondorioz. Hainbat lekutatik
igaro ondoren,
Beddawin amaitu genuen.

Badakizu? Nik sarritan egiten
dut amets benetan bidaiatu ahal
izatearekin, alabak eta biok herrialde
asko bisitatzearekin, hari beste
kultura batzuk eta bizitza
kanpamentu bat baino
gehiago dela erakusteko.



Oso gazterik
ezkondu nintzen,
baina hori ez
da aitzakia.



12 urtez, senarrak
tratu txarrak eman
dizkigu bi alabei
eta hirvoi.



Eta ez nuen
famiariaren
laguntzarik izan,
nahiz eta nire
sufrimendu
ikusten zuten.
Amak behin eta
berri esaten zidan
adiskidetzeko,
barkatzeko, gizonak
horrelakoak direla
eta pazientzia izan
behar dela.



Hara... Kasu horiek
salatzea edo
dibortziaztea zaila da,
baina garrantzitsua
da norberaren eta
alaben ongizatea
zaintzea.



Oso ausarta zara indarkeria-zurrunbilo horretatik ateratzen ahalegintzen zarelako.



Eskerrik asko, Rawa. Erabaki gogorra izan da, baina aurrera jarraitu behar dut.



Eta lan egin behar dut ekonomikoki autonomia izateko eta alabei eta neure buruari etorkizun ona emateko. Senar ohia libanoarra da, eta ez dit mantentzen pentsiorik ematen alabentzat.



Ez daukat nora jo. Hemengo estatus pertsonalaren eta familiarraren legeek ez gaituzte babesten, emakumeak eta palestinarrek garelako.



Eta badakit Libanoko legeria oso murriztailea dela Palestinako errefuxiatuak izan ditzakegun lanbideekin. Errefuxiatuak izateagatik, ez digute uzten hainbat lanbidetan aritzen.



Idazkari-ikasketak egin nituen, oso ondo hitz egiten dut ingelesez, baina ez dakit enplegua nola aurkitu.



Lagunduko dizugu lana bilatzén. Ondo moldatzen al zara ordenagailuarekin?



GAZTE ZERBITZUEN SAILA

Bai.




Lortuko duzu, ziur nago.



Guk hemen lagunduko dizugu lana bilatzén, eta lanbide-heziketako zentroko gure lankideek, Sibblingen.




BRUJ BARAJNEH




Brúj Barajneh-ko eremua,
Beiruteko kanpoaldean.

UNRWArek eskola.



Hiba: FUTBOL ENTRENATZAILEA.
20 URTE. INGENIERITZA
INDUSTRIALEKO IKASKETAK
AMAITZEN ARI DA.



Hiba irakaslea,
sentitzen dut
berandu
iristea...



... eztabaida
izan dut
aitarekin.

Berriro?
Berarekin hitz
egitea nahi
duzu, Tania?



Ez, ez...
Antigalekoa da,
ez zaio ongi
iruditzen
emakumeok
kirola egitea.



Harekin hitz
egitera joaten
bazara, ez dut
uste aurpegira
begiratu ere
egingo dizunik.




Etortzen uzten ez
didanean, gelan sartu eta
konfinamenduan bidali
zenizkigun bideoak
ikusiz entrenatzen naiz.



Hara, eta
ni ikusten ez
zenituztelakoan!







Ez dut uste.
Familiagatik.




Siriatic etorri ziren duela
6 hilabete, konfinamenduaren
aurretik.



Haren gurasoek ez dute
lanik, UNRWAn laguntza
humanitaria jasotzen dute
etxearen alokairurako eta
oinarritzko produktuak
erosteko...



... baina aztertzen
ari dira beste eremu
batera joan edo hemen
geratu.



Alepotik ihes egin behar
izan zuten, dena utzita.
Gogorra da. Hainbat ikasle
ditugu egoera horretan.



Gainera, ez dute
onartzen alabak futbolean
jokatzea.



Bai,
hala da...

Aizu,
Palestiniadia*
berriro antolatzen
saiatu nahi dut,
2018an bezala.



Zein ona izan zen!
Hori lagungarria izan
daiteke neska-mutlak
berriro motibatzeke!
Komunitate osoa
motibatzeke, egia
esan!



Bai, eta Taniaren
famiarekin hitz egiten
ere saiatu nahi dut.
Ezin diote ametsa
kendu. Ez dut nahi
ametsa ken diezaioten,
Amir.



Lortuko
duzu, seguru.
Beti lortzen
duzu nahi
duzuna.



Benoa, badakizu zein
den nire ametsa:
Libanotik irteten,
Alemaniara bizitzera
joan eta hango ligan
lehiatzea.



Ez duzu gutxi
eskatzen!
Baina lortuko
duzu!

* UNRWAK urtero Libanon antolatzen dituen kirol-jokoak. Jada hamar edizio antolatu dira. Bertan, Palestinako errefuxiatu eta Libanoko gazteek parte-hartzen dute.

EIN EL-HELWEH



Ein El-Helweh-ko eremua,
Sidoneko hegoaldean.



Ama, kontatu Nabili
zein den gure jatorria,
Mohammadi eta niri
beti kontatu izan
diguzun bezala.

Wahida: SIRIATIK LIBANORA
IHES EGIN BEHAR IZAN ZUEN BERE
FAMILIAREKIN GERRAREN ONDORIOZ.
ARTE EDERRAK IKASI ZITUEN ETA,
40 URTEREKIN, BERE NEGOZIOA
JARTZEAREKIN EGITEN DU AMETS.

Palestinako familia
errefuxiatu bat gara.
1948an, zuen aitona-
amonek Siriara egin
zuten ihes.



Ama, nik
gogoan dut hona
iritsi baino
lehen kanpamentu
askotan egon
garela.

Bai. Gure familia palestinarra da. Nire gurasoak Al-Led-ekoak dira, baina ni Sirian jaio nintzen, Damaskoko Yarmouk kanpamentuan.



Zuen aita Haifakoa da, eta hark ere familiarekin Siriara egin zuen ihes umetan.



Harekin ezkondu nintzenean, Yarmouk-en jarri ginen bizitzeko. Barazki-postu bat geneukan azokan.



Han jaio zineten Mohammad eta zu, Nidal.



20llean gerra hasi zen eta alde egin behar izan genuen.



Egunero egoten ziren borrokatik. Eskolatik atera zintuztegun, eta aita utzi egin behar izan zion azokan saltzeari...



Eta, Mohammad nerabea zenez, beldurra nuen zer bait egingo ote zioten.




Hala, hura izan zen Siriatik alde egiten aurrera. Lehengusu baten etxera bidali genuen, Libanora.



Oso egun tristeak izan ziren, ia ez nuelako zure berririk, Mohammad.



Eta, egun batean, gure etxea erre egin zen bonbardaketa batean, eta, etxearekin batera, nire bihotza.



Ez genuen bizitzeko lekurik. UNRWArek babesleku batean eman genituen egun batzuk, eta Libanora ihes egitea erabaki genuen. Ezer gabe. Gure familiak eta Yarmoukeko jendeak.



Denek alde egin behar izan zuten beren etxeetatik, 1948an bezala. Gero, hainbat kanpamentutan egon ginen eta hemen, El-Helweh-n elkartu ahal izan ginen zurekin, Mohammad.

Hurrengo goizean.

Begira, Palestinako errefuxiatuok
Libanon egin ezin ditugun
lanen zerrenda aurkitu dut.
Ezingo dut kontabilitatean
lan egin. Zer egingo dugu, beraz?

Ama, prest
nago eskolara
joateko.

Goazen,
alabaxo.

Barkatu,
Wahida, ba al
duzu tarte
bat?



BEIRUT



Ahlan maitea, Rawa naiz.
Egunak daramatzazu nirekin
harremanetan jarri nahian
eta audio bat bidaliko dizut.



Eztanda gertatu zenean,
Beddawiko eremuan nengoen.
Urrun harrapatu ninduen. Gero
hiria kaosa izan zen: autoak,
anbulantziak, jendea urduri
korrika... Hortaz, Beddawin
geratzearabaki nuen



Eta badakizu Internetek
huts egiten duela aldiro-aldiro.
Ezin izan nizun mezurik
bidali. Sentitzen dut
niregatik kezkatu izana,
adiskide maitea.

